

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

Arabán, Gaubeako udalerrian, Villanañe herrian isolatuta dauden bi etxebizitzetan sortutako hondakin urak isurtzeko baimena

Espediente-zenbakia: VDP-A-2020-0008

Eskatzailea: Villanañeko Administrazio Batzarra

Villanañeko Administrazio Batzarrak eskatu du aldentutako bi etxebizitzetan sortutako hondakin urak isurtzeko baimena, lur ez urbanoan daudenak, hobi septikoa dutenak eta udaleko saneamenduan konektatu ezin izan direnak. Horretarako dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hamar eguneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten Gaubeako udalean edo lurralde-bulego honetan (Forondako Atea 9-11- 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 1ean

Mediterraneoko Arroen bulegoburua
JAVIER AGUIRRE ORCAJO